



Perpaus osagarriak. Konpletiboak eta zehar-galdera

Perpaus konpletiboak eta zehar-galderak **zer?** galderari erantzuten diote eta osagarri zuzenaren lekua hartu ohi dute perpaus nagusian.

-(e)la / -(e)nik

Perpaus nagusia baiezkoa denean, konpletiboak **-(e)la** atzizkia hartuko du; ezezkoa denean, ordea, **-(e)nik**. Nahiz eta perpaus nagusia ezezkoan izan, konpletiboak har dezake **-(e)la** atzizkia, baldin eta hiztunak bertan esana gauza ziurtzat badauka.

*Jon etxean dago**ela** uste dut.*

*Ez pentsa hain erraza **denik**.*

*Bihar ez dut uste bazkaltzera etorriko naizen**ik**.*

*Amak ez daki Jon etxean dago**ela**, leihotik sartu baita.*

*Ez ahaztu bihar afaria daukag**ula**.*

*Ba al dakizu Jon etorria **dela**?*

*Ez naiz konturatu larunbatero errepidea isten dut**ela**.*

*Ez nekien bihar zure urtebetetzea **zela**. (**zenik**)*

*Ez ginen berehala konturatu hemen etsai artean genbiltz**ala**.*

-(e)na

Bizkaia aldean, batez ere, **-(e)laren** ordez **-(e)na** erabiltzen dute, esandakoa oso ziurra denean eta gainera perpausaren atzealdean kokatuz, hau da, ez galdegai gisa.

*Badakit azterketa gainditu duz**una**.*

*Ziur nago ezer ez daki**ena**.*

*Horixe joango naiz**ena**.*

*Argi dago txarto dago**ena**.*

-t(z)eko

Aginte-perpauetan gehienbat aditz jokatu gabeak erabiltzen dira eta **-t(z)eko** atzizkia hartzen dute. Subjuntiboa erabiltzen denean, ordea, **-(e)la**, **-(e)n** atzizkiak.

Zenbaitetan, hala ere, agintera-zentzu oso ahula edo subjektu bera dutenean bi aditzek, -**t(z)ekoren** ordeaz **-t(z)ea** erabiltzen da.

Amak ohera joateko esan dit.

Josunek eskuak garbi ditzagun eskatu du.

Alkatearekin hitz egitea eskatzen dugu.

Sindikatuak eta Gobernua elkartzeari eskatu dute manifestariak.

-(e)lako ustea, zurrumurrua, berria ...

-(e)la atzizkiak **-(e)ko** atzizkia har dezake eta honen bidez zuzenean izen bati lotu. Honela sortzen den perpausak erlatiboaren antz handia du eta inoiz erlatibo bidez ere egiten dira.

Gezurretan nabilelako (nabilen) susmoa zabaldu da.

Aita Saindua hil delako (den) berria entzun dut irratian.

Lehendakariorde izendatu zaituzten (zaituztelako) berriak jende asko poztu du.

Forma honetatik eratorritakoak dira **-(e)lakoan**, **-(e)lako**a, **-(e)lako**ak.

Orain beste batekin dabilelako entzun dut.

Zu zinelakoan hizketan hasi nintzaion.

Baietz / ezetz

Perpaus konpletiboa *bai* eta *ez* partikulen gainean eraikitzen denean, baietz, ezetz esapideak erabiltzen dira.

Nik baietz esan nuen, berak, ordea, ezetz.

Zehar-galdera: -(e)n

Mendeko perpausaren galdera edo zalantza dagoenean, zehar-galdera erabili ohi da. Ez du axola perpaus nagusia baiezkoa, ezezkoa nahiz galderazkoa izatea. Beti mendeko perpausak agintzen du, eta hau galdera edo zalantza bada, -N edo bere aldagairen bat erabili beharko dugu.

Batek daki bizirik ote dagoen.

Kontuz nori esaten diozun.

Ba al dakizu nor datorren?

Oraindik ez dizut esan zer pentsatzen dudan.

Zati-galderetan (galdetzailea dutenak), eta perpaus nagusia falta denean edo agintezkoa denean, maiz ea jartzen da mendeko perpausaren aurrean.

*Ea nork laguntzen didan hau egiten.
Begira ezazu ea ondo dagoen.
Ea isiltzen zaren!*

-(e)n ala ez / -(e)nentz

Zehar-galderaren aldagai dira hauek, eta baietza edo ezetza indartzeko dira.

*Oraindik ez dakigu egingo dugun ala ez.
Oraindik ez dakigu egingo dugunentz.*

-ba aurrizkia zehar-galderetan

Bizkaierako zenbait tokitan zehar-galdera aukera galdera denean, **-eN** atzizkiaren ordez **ba-** hartzen du, ahozko hizkeran batez ere.

Ez dakit etorriko bada.

Zehar-galdera ala erlatiboa?

Kontuz ibili beharra dago galdetzaileekin egiten diren hainbat mendeko perpausekin, izan ere, zehar-galdera baitira, eta ez askotan, erdararen eraginez, erabiltzen ditugun erlatiboak. Bereiztea ez da erraza, baina baliabide bezala erabil genezake, zalantzan gaudenean, jarraian azaltzen dugun trikimailua. Erdarazko *lo que* hori **qué** soil batez ordezka daitekeenean, zehar-galdera batean egongo gara, eta euskaraz zehar-galdera gisa jarriko dugu, hau da, **-(e)n** bidez. Hori egiterik ez daukagunean, ordea, **erlatiboa** erabili beharko dugu.

*Ez dakit zer gertatu zaidan.
Badakit nora joango zareten.
Ez du esan norekin ezkonduko den, ezta ezkonduko den ere.*

Zer egin

Maiz, galdetzaileak erabiltzen direnean, ezabatu egiten da aditz laguntzailea, eta baita **-(e)n** atzizkia bera ere.

Ez daki nora joango den. —> Ez daki nora joan.

Zenbat kasutan lexikalizatu (hau da, izen bihurtu) egin da, «**zeregin, zeresan, zerikusi**» eta antzekoak sortuz.

*Nik ez daukat **zerikusirik** hor gertatutakoarekin.*

Zertan

Aurrekoan esandakoaren haritik, *zertan* galdetzailearen bidez ere perpaus bereziak sortzen dira. Motiborik edo beharrik eza adierazteko erabiltzen da. Erdarazko «**No tengo por qué ...**» esamoldearen parekoak sortuz. Hauei ez jarri atzetik **beharrik**.

*Ez duzu zertan beti guk esandakoa egin. = Ez duzu beti guk esandakoa egin beharrik.
Ez geneukan zertan joan, baina joan egin ginen. = Ez geneukan joan beharrik, baina joan egin ginen.*

ARIKETAK

BI ESALDI HAUEKIN BAKARRA SORTU. HORRETARAKO KONPLETIBO FORMAREN BAT ERABILI BEHAR DA.

1. Zeregin asko zituen. Hori izan zen eman zigun arrazoia.
2. Filme atsegina zela pentsatu genuen. Joan egin ginen.
3. Txoriak ikustean irlaren bat laster aurkituko zuten itxaropenaz, iparraldera jo zuten.
4. Ikasle bat hil da. Berri hori zabaldu da euskaltegian.

ERANTZUN KONPLETIBOA EDO ZEHAR GALDERA ERABILIZ

1. Morroiak nagusiari: “Astoa zaharregia da eta hobe dugu hiltzea”.
- Zer esan dio morroiak nagusiari?

2. Astoak txakurrari: “Zer gertatzen zaizu?”
- Zer galdetu dio astoak txakurrari?

3. Astoak txakurrari: “Oso triste ikusten zaitut”.
- Zer esan dio astoak txakurrari?

4. Astoak txakurrari: “Zergatik ez duzu zaunka egiten?”
- Zer galdetu dio astoak txakurrari?

5. Txakurrak astoari: “Oso zaharra naiz eta ez omen dut ehizan ibiltzeko balio”.
- Zer erantzun dio txakurrak?

6. Astoak txakurrari: “Etorri nirekin eta zirko bat antolatuko dugu”.
- Zer esan dio astoak txakurrari?

ZUZENKETAK

1.-

Zeregin asko zituelako arrazoia eman zigun

Film atsegina zelakoan joan egin ginen

Txoriak ikustean irlaren bat laster aurkituko zutelako itxaropenaz, iparraldera jo zuten

Ikasle bat hil delako (den) berria zabaldu da euskaltegian

2.-

1. Morroiak nagusiari: “Astoa zaharregia da eta hobe dugu hiltzea”.

- Zer esan dio morroiak nagusiari?

Astoa zaharregia dela eta hobe dutela hiltzea _____

2. Astoak txakurrari: “Zer gertatzen zaizu?”

- Zer galdetu dio astoak txakurrari?

Ea zer gertatzen zaion _____

3. Astoak txakurrari: “Oso triste ikusten zaitut”.

- Zer esan dio astoak txakurrari?

Oso triste ikusten duela _____

4. Astoak txakurrari: “Zergatik ez duzu zaunka egiten?”

- Zer galdetu dio astoak txakurrari?

Ea zergatik ez duen zaunka egiten _____

5. Txakurrak astoari: “Oso zaharra naiz eta ez omen dut ehizan ibiltzeko balio”.

- Zer erantzun dio txakurrak?

Oso zaharra dela eta ez duela ehizan ibiltzeko balio__

6. Astoak txakurrari: “Etorri nirekin eta zirko bat antolatuko dugu”.

- Zer esan dio astoak txakurrari?

Harekin joateko eta zirko bat antolatuko dutela__
